

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Agustin Lasarte Beraza

*Donostia,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Ibaetako Portuetxe baserrian jaioa, hura sagardotegia zenean (orain jatetxea da); etxea XVI. mendekoa da, eta sasoi hartan itsasoa bertaraino iristen zelako deitzen da hala. Aita bertakoa zen, sagardogilea, eta ama gertuko beste baserri batekoa; hura zaldi-karroan joaten zen Bretxako azokara, berdurarekin. Sei urterekin Igarako eskolan hasi zen Agustin, eta 11 ingururekin klase partikularrak hartzen, Antiguan. Bost senide ziren, baina bi gazterik hil ziren. Gainerakoei baserriko lanak egitea egokitu zitzairen, baina ez zuten horretarako afizio handirik, eta nork bere bidea egin zuen. 1958an Agustin Gurelesan hasi zen lanean, eta hantxe ibili da erretiroa hartu arte. Ezkonduta dago eta alaba bat dute.

Zintak

DON-047

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-29
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Transkribatzailea(k):** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Ibaeta, Benta Berritik Usurbileraino

- **Erref:** DON-047/002
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ibaeta auzoan baserri asko zeuden orduan. Auzo luzea da, Benta Berritik hasi

eta Usurbilgo mugaraino hedatzen baita. Portuetxe auzoaren erdi-erdian kokatzen da, gutxi gorabehera. Aintzina, Ondarretatik Portuetxeraino dena padura zen, eta garai hartan itsasontziak Portuetxeraino iristen ziren. Handik hurbil zegoen Urrezti baserria, bertan ez zen ur gazirik, ur ezia baizik.

2. Padurako urak saneatuz

- **Erref:** DON-047/003
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:09:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Padurako urak udarako lehorteekin estankatu eta hamaika gaitz hedatzen ziren bertatik. Irandako markes batek erosi zituen padurako lurrak, eta saneatu egin zituen. Ondoren, Miramar jauregia egin zutenean Olasagastitarrek, gauza bera egitea bururatu zitzaien, eta berriz saneatu zituzten inguruak.

3. "Plaza de Ibaeta"

- **Erref:** DON-047/004
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:09:23. **Bukatu:** 00:12:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Poligono industrialala egin zutenean, "Polígono industrial de Igara" izena jarri zioten, baina ez omen dago industriadik, eta ez omen dago Igaran, Ibaetan baizik. "Glorieta de Igara" ere bazen inguruan, eta udaletxera zenbait gutun aurkeztu ondoren, pleno batera eraman zuten gaia eta bertan erabaki zen izena aldatzea, egun "Plaza de Ibaeta" izenez ezagutzen da.

4. Portuetxe, portuko etxe izatetik baserri izatera

- **Erref:** DON-047/006
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:15:03. **Bukatu:** 00:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Portuetxek portuko etxea izateari utzi zionean, baserri moduan jarri zuten, baratze eta guzti. Aita bertakoa zen, bost senide ziren, eta Berakoa zuten ama, ondorioz Agustinen aita Lekarozen ikasia zen. Ama, berriz, Aritzeta inguruko Loiztegi baserrian jaio zen, hamar senideko familia zen.</p>

5. Lasarte apaiza, Carlos VII.aren kapillaua

- **Erref:** DON-047/007
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:18:07. **Bukatu:** 00:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Familian denetarik izan zuten, aitonaren anaia zenbaitek gozotegia jarri zuten Donostian bertan eta beste anaia bat, berriz, apaiz egin zen, Carlos VII.aren kapillaua izan zen. II. karlistada galdu zutenean, Parisera alde egin zuen bizitzera, "exilio dorado".

6. Lasarte apaiza Pariseko erbestean hil zen

- **Erref:** DON-047/009
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:22:08. **Bukatu:** 00:25:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Aitonaren anaia, Carlos VII.aren kapillaua izan zena, Pariseko erbestean hil zen eta Portuetxeko panteoira ekarri zuten gorpua. Santa Kruz apaizaren istorio denetan agertzen omen da "el cura de Portuetxe" edo "el cura Lasarte", Santa Kruz borrokalaria baitzen eta Lasarte, ordea, ofiziala, ortodoxoa, amorru handia zion Lasarteri.

7. Panteoia, Portuetxetik Polloera

- **Erref:** DON-047/010
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:25:57. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Portuetxe Polloeko hilerria baino lehenagokoa zenez, gerora Polloera eraman zuten Portuetxeko panteoia. 1885. urte inguruan hil zen Lasarte apaiza, eta bere ondasun guztiak Parisetik Portuetxeraino iritsi ziren, guzti guztiak.

8. Lasarte apaizaren koadroarekin Madrilera

- **Erref:** DON-047/012
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:31:12. **Bukatu:** 00:35:54

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lasarte apaizaren ondasunen artean, Priseko erretratugile onenetariko baten koadroa topatu zuten, Grekoren kopia bat. Madrilgo Prado museora eraman zuten koadroa, eta ondoren Duran museora jo zuten, bietan gauza bera esan zieten, XVIII. mendeko koadro bat zela, kopia bat, eta milioi bat edo bi milioiko balioa zuela.

9. Etxean morroia eta neskamea

- **Erref:** DON-047/013
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:35:54. **Bukatu:** 00:37:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Etxean morroia eta neskamea izan dituzte betidanik. Ama plazara joaten zen zaldi karroan, dotore jantzita.</p>

Transkripzioa

-Bueno. ordun hoik dia antziñako kontuk, gero ba gure izaera? Aita be basarriyakin ta, bee zeakin, morroiya ta, neskamia, etxian. Esan detena, etxe itxurazkua zanak morroiya ta neskamia, ez zan sobratuko diruik eta ezer baiño, morroiya ta neskamia, hoi beti. Gu hala hazyak gea, beti neskamiakin ta hola. Ama karruakin juten zan plaza.

-Nora, Bretxara ala San martiñera?

-Bretxara, Bretxara. Be zaldiyakin, beti zaldi txukunakin ta dotoriakin, joe! Gue aitag azkazalak zaldiyai eunero ateatzeko, oliyo zeakin, beltzakin pintatuta, brillua dula.

-A bai e?

-Holako detailliak e, bai jo! Eta gue ama, ama zan, ez ne ama zalako baiño, emakume bikaiña, ederra, erregiña deitzen ziyon, erregiña. Baiño, mantala rasoko beltza, mantalakin. Ta ni goatzen naiz txikitan amai beida eta tenazillakin orraztu ta ondak iten, tenazillakin. Tenazillak beotu ta, zuk badakizu zer dan hori?

-Ez.

-Tenazilla hola luziak zian, haik beotu, eta haik illian sartu ta, markatuta gelditzen zian ondak, baiño presumidas e, joe! Hala bihar du.

-Eta zapirik eta ibiltzen zun buruan?

-E?

-Paiñuelorik o zapirik o buruan, ez?

-Ez ez, hoi ez, ez. Moiño ederra bai, moiño alto-alto, ederra ta, jo!

10. Gerra eta gosea

- **Erref:** DON-047/014
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:37:35. **Bukatu:** 00:39:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra hasi zen urtean, 1936an hasi zen eskolan Agustin, Igarako eskolan. Eskolatik entzuten zuten nola erortzen ziren bonbak. Familian goserik ez zuten pasa, baserrian beti bazen zer jana, baina errazionamendua zela-eta inguruan gosea pasa zuen jendeak.

Transkripzioa

-Ba, eta, gu hola hazi giñan, ya txikitan Igarako eskola lehenbizi, hoi zan pentsatu, ni treinta y seisian sei urte nitun ta ordun hasi nitzan eskola, gerra hasi zan urtian. Sentitzen genitun zea, gerra, gerrako barkuba Cervera, hemen Donosti ingurun, zea xamar, eta botatzen zitun bee obusak eta aldi horta, eta gertu gaiñea, eroitzen zian e! Gertu. Eta guk sentitzen genun: "xxxiiii buum!", zian denboa batzuk, jo! Eta eskasiya ordun, ez zan rasionamentuba, eta, joe, ogiya're bueno, baserrin bakizu beti txerriya o hiltzen zala ta taluak eta, baiño jendiak pasatzen zitun gorrik e, jo! Ogiya ematen ziyuen este, artuakin indako ogiya, dana zartatuta eoten zan zeatikan, lokotxak eta guztikin iten zuen, ogiya. Dana irikiya, ezin zan jan hua, ekartzen zan e, gue amak danak ematen zuen boniatuak, zalduyen jatena, boniatos! Hua're jaten genun.

-Patatan partez?

-E?

-Patatan partez hori.

-Baiño, pasa zian hemen, oan jendia keja iten da /itea/, krisisa ta, bai krisisa baiño, hua pasa zunak, berriz'e pasako dik, oangua're, pasa biharko! Esaten da arratoiyak eta este, gizasemiak aguantatzen duela dana, gaiñontzekuak galduko dia /galdukoia/, baiño arratoiyak eta pertsonak, hoik aguantatzen due /aguantatzeue/, dana!

11. Eskolatik klase partikularrak jasotzera

- **Erref:** DON-047/017
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:43:54. **Bukatu:** 00:45:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Igarako eskolan, neskak goiko pisuan egoten ziren eta mutilak behean. Besoak altxata Cara al Sol abesten aritzen ziren. 10-11 urterekin klase partikularrak jasotzen hasi zen, Jose Antonio Cotorekin. Oso gizon azkarra omen zen, artista.

12. Gurelesara lanera

- **Erref:** DON-047/018

- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:45:34. **Bukatu:** 00:49:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Gurelesa enpresa 1958an jarri zen martxan, bertan hasi zen lanean Agustin. Behin gerra pasata, Erromako tratatuak Espainiari bi baldintza ezarri zizkion Europan homologatua izan nahi bazuen; prostituzioarekin amaitzea eta esnearen higienizazioa. Beraz, espainiar estatu osoan esnearekin lan egiteko zentralak ireki ziren, tartean Donostiako Gurelesa. Baserritarrei debekatu egiten zitzaien kalean higienizatu gabeko esnea saltzea, eta horren harira hamaika manifestazio egin ziren Donostian. 12 urte inguru igaro zituen Gurelesan lanean.

13. Esnea kristalezko botiletatik briketara

- **Erref:** DON-047/019
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:49:22. **Bukatu:** 00:50:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Gurelesa enpresan 120 langile aritzen ziren lanean. Hasieran kristalezko botiletan sartzen zuten esnea, brikak gerora etorri ziren. Esnekiekin ere egiten zuten lan.

14. Portuetxeko sagardotegia

- **Erref:** DON-047/020
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:50:18. **Bukatu:** 00:53:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Aita berak 21 urte zituela hil zen, eta Agustinek heldu zion baserriko ardurari. Denetik zuten baserrian: idi-parea, oiloak, baratzea... Sagar ugari ere bai, dolarea zuten Portuetxen, sagardotegia. Aitak oso sagardo ona egiten zuen, sagar mota desberdinekin: gaziak, gezak, eta abar. Kanpotik ekarritako sagarrekin egindako sagardoa ere bazen, baina ez zen hain kalitate onekoa.</p>

15. Kupela hustu arteko bakerik ez

- **Erref:** DON-047/022
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:54:10. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Inguruko hainbat baserrian oso sagardo ona egiten zuten, baita Portuetxen ere. Kupelak zabaltzen zituzten garaian, langileak lantegitik atera eta ia egunero joaten ziren sagardotegira, eta kupela hustu arteko bakerik ez zuten izaten. Gainontzean, Agustinen arabera Astigarragan eta Hernanin egiten den sagardoa da sagardorik onena.</p>

Transkripzioa

-Hoik danak ikusi ditugu /ikusitugu/.

-Eta hola jende asko juten zan zuen sagardotegira?

-Bai, baita baita. Hemen iten zan, hemen bueno, hasi Isaberritikan, Portuetxe, Urrezti ta Errotaberri, sagarduak "de categoría"! Hemen kupel bat irikitzen bazan Antiguako Jabón Lagarto, Lizarreturri Rezola ta Schuchardt hor zian, obrero guztik bosteterditan o bukatzen zuen lana o seiyyetan, danak, egunero zea, been meinda hartu, boltsakin ta, saardoteira! Eta ordun esaera zan: "Hau ez zeok uzteik!" Hanbesteko kalidadia, hustu arte, ez zuen ematen pakeik! Hustu arte. "Hau ez zeok uzteik, halako sagarduakin!". Hoi beste kontu bat da. Saardo onenak, hemen ez hoi ya, saardoteik ez do /ezto/, iñor ez, baiño, Astigarraan ta Hernanin, onenak, ta beti izango dia hola! Oñatin, ezin da sagardo on bat in, ezta Goiyerrin, iñon ez, badaude batzuk e, baiño nik ikusten det / ikusteet/ saardua, herri hoitakuak, eta seitun nabarmentzen da / nabarmentzea/, Goiyerriko sagardua, sagardo gorriya, ezta klarifikatzen, ezta garbitzen, ta esango dizut /esangoizut/ zergatikan: sagardo ona izateko, hoi jo, hoik danak eakutsi zizkiun, du bihar du, "presión atmosférica" haundina, horreatikan bihar du itsasko, itsasoko nibelian oandikan hau bezela, bost metroa, erreka zokua ta, bost metro, "del nivel del mar", "máxima presión atmosférica". Ta horrek iten du /iteu/ garbitu sagardua, "clarificar". Ta die sagardo garbik, Hernanin ta Astigarran, beti garbik. Gorrik ez, Goiyerrin bezela. Garbi-garbik. Kondiziyua horreatikan, behin'e ez dia bukatuko Hernani ta Astigarraga ta, horko sagarduak beti izango dia, zeatikan da lekuba bereziya, hortako.

16. Portuetxen sagardoa botiletan

- **Erref:** DON-047/023
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:56:40. **Bukatu:** 00:58:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Portuetxen sagardoa batez ere botiletan saltzen zuten, inguruko baserri batzuetan berriz, txotxetik saltzen zuten.

17. Portuetxe jatetxea

- **Erref:** DON-047/027
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:06:55. **Bukatu:** 01:09:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Anaia zaharrena mekanikoa zen, mekaniko lanetan aritzen zen ez baitzuen baserriko lanetarako bokazio handirik. 1965. urte inguruan ikuilua eta upeldegia moldatu, eta bertan jatetxe bat jarri nahi zutenei alokatu zieten etxearen zati hori.

18. Askotariko jostailuak etxean

- **Erref:** DON-047/029
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:13:18. **Bukatu:** 01:15:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Jostailurik ez zitzairen inoiz falta izan. Bizikleta, motorra, kometak... denetik izan zuten. Berrikuntza guztiak, Portuetxera iristen ziren beste inora iritsi aurretik.</p>

Transkripzioa

-Ordun umiak, guri ez zitzaion sekula faltatu jostailluba, gu txikitatik beti jostaillubakin, klase guztitakua. Jo, baiño baiño, danetatik e!

-Bai? Ze, adibidez?

-Bueno, bazian han kometak'e ekarri ta kometakin, korrika, kometak altxatzen. Oain umiak zeoze ikusten ai dia baiño, guk kometak ezautu ditugu /ezautuitugu/, bueno oain dala hirurogei ta hamar urtian ezautu ditugula /ezautuitugula/ kometakin, korrika ta, baiño zeak, biziketak, biziketa txikik, motuak-eta, holako trastiak, danak e! Danak, danak!

-Orduan inbidi, inbidiaz eongo zien auzoko beste mutikuak-eta?

-Bueno, baiño hortikan kanpoa're esan bihar da, esan detena, aiten anaiya, Jose, Credit Lyoneko administradorea, ta hua zan Donostin señorituakin bizi zana, horko señorito guztiyakin. Launak. Eta lehenbiziko bizikletak, barriyuan ta, bueno, harrena! Ordun biziketakin ibiltzen zian danak, kotxeik apenas zan, eta biziketakin. Guk, gue lehenbiziko biziketa hortitxen, eta lehenbiziko goldia Braban, frantsesa, Portuetxen, ta dana hola, dana hola. Gauza azkarrenak. Horreatikan, etxe zaharrak, hoi due.

19. Jendetza hiletan

- **Erref:** DON-047/030
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:15:02. **Bukatu:** 01:17:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Norbait hiltzen zenean, jende asko gerturatzen zen familiagana. Gogoan du aitaren hileta astegun batean izan zela, eta jendetza bildu zela, mota guztietako jendea; baserritarrak, kaletarrak...

20. Euskaraz aritzea debekatuta

- **Erref:** DON-047/031
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:17:12. **Bukatu:** 01:18:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Etxean euskaraz aritzen ziren arren, kalean euskara gutxi entzuten zela dio Agustinek, debekatua baitzegoen, jendea beldur zen.</p>

Transkripzioa

-Euskeraz iten zenuten zuek beti?

-Bai, beti, beti.

-Baiña galarazita edo bueno, kalia ez zan iten, ez?

-Bai, bai, ordun horren buruz asko galdu genun e, guk behintzat mutil koskorak-eta, galaziya eon baitzan, eta jo gaiña bildurra sartuba, bueno medulaino, eta nik neonek oain gaxki hitzeiten det, oso gaizki baiño, defenditzen naiz. Ordun ze, iya ahaztu dana, aizu! Hoi izan zan e, iya ahaztuta. Zeatikan gerratiak hoi du e, jendiak, bildurra sartu zan, eta ez zun hitzeik in nahi, asunto hoitatik, beti: "Utzi utzi, utzi, nahikua deu, nahikua pasa ditugu ta". Ez zun berritu nahi jendiak, pasatu zianak.

-Baiña etxian, amakin ta aitakin ta euskeraz ingo zendun?

-Bai, etxian beti, bai. Baiño pentsatu, zerta iritsi zan jo gue ama, karruakin ta, igual pasatzen zan eozin zea, ejerzitokua ta, obligaziyua besua altxata, pasaran, karruan ta besua altxata aizu, zalduyak kopetian espagnolako piperpotua bandera, jarrita. Hortaino e, hortaino, baiño baiño baiño, lotsagarri e! Hemen pasa dianak. Geo berriketan aitzen dia, maketo zikiñ habek, jo, hemen pasa dianak! Jesus! Ze umillaziyuak, bua! Bueno, bueno, bueno!

21. Bost senideko familia

- **Erref:** DON-047/032
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 01:18:48. **Bukatu:** 01:23:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita ez zen feria zalea. Agustin bizikletaz joaten zen eskolara, anaia berriz, mekaniko lanetan aritzen zen eta motorrean ibiltzen zen aurrera eta atzera. Amak ematen zion gasolinarako dirua, pezeta bat balio zuen litroak, estraperloan. Bost senide ziren guztira, horietarik bi gazterik hil ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com